

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Gure gorotzek ez dute berotegi efektua areagotzen

ALMERIAKO UNIBERTSITATEKO (Espainia) ikerlari talde batek gizakiok elikatzeagatik sortzen dugun karbono dioxido kantitatea neurtu du. Azterketa Espainiako biztanleen datuekin egin dute, eta *The International Journal of Life Cycle Assessment* aldizkarian argitaratu. Batez beste, pertsona bakoitzak 881 kilo elikagai kontsumitzen du urtean, eta epe berean bi tona karbono dioxido emititzen du.

Kalkulu horiek egin ahal izateko jakien produkzioarako nekazaritza eta azienden langintzak, industri transformazioa, prestaketa eta sukalde-lanak, hondakin solidoen trataera eta gizakien gorotz kantitatea aztertu dituzte. Azken horri buruz zera diote ikerlariek: "Gizakiaren kakek eragin zuzena dute ibaien eta itsasoen kutsaduran, baina ez berotegi efektuan, sortzen den karbonoa fotosintesiaren bidez orekatzen baita".



WWW.FLOW4THEWORLD.COM

Amazonia, euri sortzailea

ALEMANIAKO MAINZ HIRIAN dagoen Max Planck Kimika Institutuko ikerlariek Amazoniak bere euria sortzen duela frogatu dute. Nola? Eurite sasoian, Amazoniako oihanak askatutako partikulek lainoetako ura kondensatzea eragiten dute, euria sortuz.

Amazoniaren gaineko airea oso garbia da eta bertan topa daitezkeen partikulak, neurri handi batean behintzat, oihanak askatutakoak dira. Partikula horien %80ak mikrometroa baino diametro txikiagoa du eta polenez, esporez eta beste material biologikoez osatzen da; gainerako %20a Afrikatik eta Atlantikoko hainbat lekutatik garraiatutako gatzak eta mineralak dira.

Azterketa horren bidez munduko hainbat lekutako euriaren logika hobeto ulertu nahi dute, batez ere euri eskasiaren arazoari aurre egin ahal izateko.



ELPOLVORIN.OVER-BLOG.ES

Itsasoetako birusen garrantzia

Orain gutxi arte kontuan hartu ez diren arren, itsasoetan dauden birusak, planetako izaki bizidun ugariak izateaz gain, garrantzi itzela dute elikadurakateetan, arrantza-baliabideetan eta kliman.
<http://ttiki.com/19087> (Gaztelaniaz)

HIESaren aurkako borrokan aurrerapausoak

GIB birusak kutsatuta dauden 300 pertsonetatik batek ez du HIESa garatzen, bere sistema immunitarioak gaixotasunari aurre egiteko ahalmena duela. Pertsona horien sistema immunitarioaren ezaugarriak aztergai dira aspaldidanik, eta aurrerapenak eten gabe lortzen dira.
<http://ttiki.com/19088> (Frantsesez)

Teknika holografiko berriak

Ikerlari estatubatuar talde batek bideo holografikoak transmititzea eta betaurreko berezirik gabe hiru dimentsiotan ikustea lortu dute. Horretarako, besteak beste, pantaila berezia garatu dute, esparru askotan aplikazioak eduki ditzakeenak, bideojokotatik hasi eta telemedikuntzara arte.
<http://ttiki.com/19089> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia

batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

www.iametza.com
T.943 37 67 16